

gaurko filmak

Ane Muñoz

Sevillako folkloari buruzko dokumental ikusgarria

■ **SEVILLANAS.** Carlos Saurak Espainiako hegoaldeko folklorea oso gustuko duela erakutsi digu behin baino gehiagotan, gogoratu bere azken lana *Flamenco* izeneko zinta ikusgarria dela, adibidez. Bai horixe, azken aldian nahiago du fikzioa alde batera utzi eta eskura dezakeen zeluloide guztia dantzari batzuen trebezia filmatzeko erabili. Oraingoz behintzat emaitza oneko lanak lortu ditu gainera, eta gaur ikusiko

dugun honetan, andaluziar tradizioko dantzari, kantari eta gitarra jole ezagun ugari bildu zuen: Camaron, Los Romeros de la Puebla, Paco de Lucia, Lola Flores eta Rocio Jurado azaltzen dira besteak beste. Luxu handiko eszenaratze nabarmena duen filme hau, azkenik, sevillanak gustuko dituenarentzat soilik gomendatuko dut; izan ere, folklorea oso atsegin ez baduzue jasangaitza irudituko baitzaizue. ♦

■ **LA INDECENTE MARY Y LARRY EL LOCO.**

Duela bi hamarkadako zinta interesgarri hau azken aldian berriro modan dauden *road movie*-en multzoan koka dezakegu. Erritmo biziko filma da, umorezko tonurik ez da falta, eta bikote protagonista erakargarriaren gorra-beherekin tarte atsegin eta entretenigarria igaroko dugu ziurrenik. Rol laburra betez, gehienok tximuaren itxurarekin identifikatu ohi dugun Roddy McDowall (*El planeta de los simios*) ezaguna topatuko dugu. John Hough britaniarraren lehen lan amerikarra izan zen hau. ♦

■ **EL PADRE DE LA NOVIA.**

Steve Martin komiko yanki exageratuak protagonizatutako komedia hau, izenburua entzutean igerriko diozuen bezala, Vincent Minnelliren lan eder eta arrakastatsu baten *remake* zozo eta eskasa baizik ez da. Spencer Tracy eta Elizabeth Taylor falta direla sumatuko dugu, bai eta hauen ezpainetan Minnelli adituak ipiniriko elkarrizketa azkarrak ere. Diane Keaton izango du Martin komikoak alboan, zahartzen ari dela onartzea kostako zaion aitaren rola egingo duen honetan; alaba maitea ezkontzear duela izugarrizko krisia biziko du aitak. Tira, entretenigarria gerta daiteke. ♦

■ **BESAME Y ESFUMATE.**

Barretoren *Doña Flor y sus dos maridos* filme brasildarra oinarritat hartuz, nahiko lan interesgarri eta atsegina egin zuen Robert Mulligan omenduak duela hamahiru urte. Eta ia jatorrizko filmearen mailara iristen dela esango dut lasai. Bertan, laster ezkonduko den gazte alarguna ezagutuko dugu; bizitza berria hasteko prest dagoenean, bat-batean senar zenaren bisita misteriozua jasoko du emakumeak. Ingelesez hitz eginez datozkigun Sally Field eta James Caanen interpretazioak lagungarri izan bazitzaizkion ere, hau ez da Mulliganen filmo-

09.00-C+(f)	TRAIN D'ENFER OO 1965, Gilles Grangier, 85 m.
10.40-T5	LAS ESTRELLAS ESTAN VERDES O 1972, Pedro Lazaga, 90 m.
11.40-ETB2	DIVORCIO OO 1945, William Nigh, 71 m.
15.30-ETB2	CABALLEROS SOLITARIOS OO 1988, Henry Less, 90 m.
15.35-T5	A TRAVES DE LA MEDIANOCHE OO 1987, Roger Holzberg, 92 m.
15.35-A3	LA DESCONOCIDA OO 1983, Ivan Nagy, 92 m.
17.00-LA2	LAS LOCAS PERIPECIAS DE UN SEÑOR MAMA OO 1983, Stan Dragoti, 88 m.
17.20-ETB2	RETORNO AL PARAISO OOO 1953, Mark Robson, 100 m.
21.00-C+(f)	A TOUTE ALLURE OO 1994, Adam Rifkin, 85 m.
22.00-C+(e)	CUMBRES BORRASCOSAS OO 1992, Peter Kosminsky, 101 m.
22.00-LA2	SEVILLANAS OOO 1992, Carlos Saura, 53 m.
22.15-TVE1	EL PADRE DE LA NOVIA OO 1991, Charles Shyer, 108 m.
01.00-LA2	BESAME Y ESFUMATE OOO 1982, Robert Mulligan, 96 m.
01.45-T5	LA INDECENTE OO 1974, John Hough, 97 m.
04.30-A3	MARY Y LARRY EL LOCO ADIOS AMIGO OOOO 1968, Jean Herman, 110 m.
	○ TXARRA ○○○ BALEKOA ○○○○○ BIKAINA ○ ESKASA ○○○ ONA

grafian ederrenetakoa. Dena den, ez da lan makala, eta amaierara arte du interesa. ♦

■ **RETORNO AL PARAISO.**

James A. Michenerren eleberri arrakastatsua oinarritat hartuz, jatorrizko istorioaren aldean nahiko ezberdina den argumentua eskuratu eta pantaila handirako filmatzera animatu zen Mark Robson 50eko hamarkadan. Gary Cooper izarrak du protagonismo guztia; dudarik gabe, aktore honen luzimendurako egin dela igertzen zaio giro exotikoko zinta honi. Abentura erromantiko bezain entretenigarria bizitzera gonbidatuko gaitu Cooper ederrak, bere karrerako egun onenak urrun samar geratu zirenean egin dagoen zinta atsegin honetan. Dimitri Tiomkin ezaguna arduratu zen soinu bandaz. ♦


■ **ADIOS AMIGO.**

Koprodukzio frantziar eta italiar zoragarri hau,

hainbat elementu tekniko zein artistikoei esker bikaintzat jo dezakegun filme poliziako hau, guztiei gomendatu nahi dizuet. Hasteko, Japrisot idazlearen gidoi original eta landua ederki bihurtu zuen Jean Herman zuzendariak irudi. Eta berean, irudiok sinesgarri eta erakargarriagoak izan zitezten, ezinbestekoa izan zen Alain Delonek eta Charles Bronsonen eginiko interpretazio lana. ♦

■ **TRAIN D'ENFER.**

Kalitate eskaseko beste filme batekin batera, akziozko zinta entretenigarri baina pobre samar hau baizik ez dugu gaur Frantziako tebibistaren eskutik ikusi ahal izango. Jean Marais ezagunak protagonizatua da, eta honek egingo duen lanak, egia esanda, alferkeriak jota egin dagoela dirudi zenbait unetan; ez baitago gorpuztu beharreko agentearen rolean oso inspiratua. ♦



ETB1
07.30 Aurkezpena.

07.32 Superbat Gosari Txiki.

- **Dinodunak.** Komandoentzako lana.
- **Dommel.** Udako etxea.
- **Otsogazte.** Otso harrotasuna.
- **Pigmalion.** Agur Leon.
- **Mamorro Mamu Txikia.**
- **Popeye marinela.** Marrazki bizidunak.
- **Tex Averyren marrazki bizidunak.** Marrazki bizidunak.

09.45 Jauzi Kuantikoa. Itsasoko andregaita.

10.30 Kontzertua: REM.

11.20 Ispiluan. Elkarrizketa. Xabier Gereño.

11.55 Aitaxo Maitea. Telesaila. Trafiko sailean.

12.15 Sustrai.

12.50 Bertatik bertara.

13.30 Gaur egun.

13.55 Etxekaltetxoak.

14.25 Harriketarrak. Wilma neskame.

15.00 Goenkale. Ertzainak ere zelatan. Errepikapena.

15.30 Euskadi Gaztea. (Errepikapena).

17.00 Giza aberea. Biziraupenetik aurrera.

17.55 Thalassa itsasoa.

18.35 Iparraldearen orrena. Albisteak.

18.40 Superbat.

19.55 Eskubaloia: Elgorriaga-Teka.

21.30 Goenkale. Telesaila: Adredalina ugari.

22.00 Elkanotarrak.

23.55 Lurraren arnasa.

00.30 Terako azukre koxkorra.

01.00 Gaur Eguna.

01.05 Euskadi Gaztea.

02.30 Amaiera.

ETB 2

TVE 1

06.00 - 14.00	09.54: Aurkezpena. 09.55: Sustrai. 10.25: Del país de los vascos. Dokumentala. 10.55: En cuerpo ajeno. 11.40: Cine 2. Divorcio (Divorce). Zuzendaria: William Nigh. Aktoreak: Kay Francis, Bruce Cabot, Helen Mack. 1945. Zenbait bider ezkondu den emakume batek harreman berri bati ekingo dio. 12.55: Rompecabezas. 13.25: Loco por ti. Telesaila: La cinta de video.	07.00: Ring ring. Haurrentzako saioa. 09.15: Rubi. Foiletoia. 10.45: Corazón salvaje. Foiletoia. 11.25: Noticias. Albisteak. 11.30: Pasa la vida. Magazina. 13.55: Noticias. Albisteak.
14.00 - 19.00	14.00: 14.00. Albistegia. 14.30: Teleberri. 15.30: Cartel 15.30. Caballeros solitarios (Lonely knights). Zuzendaria: Henry Less. Aktoreak: D. Rambo, J. Dale. 1988. Brad negozio gizon garrantzitsu bat da eta kalean bizi direnentzat etxe bat egitea erabakitzen du. 17.20: Cine 2. Retorno al paraíso (Return to Paradise). Zuzendaria: Mark Robson. Aktoreak: Gary Cooper, Roberta Haynes, B. Jones. 1953. James Michener-en istorioan oinarritutako filme hau Samoan filmatu zen. Gary Cooper emakume batekin maitemintzen da.	14.00: Informativo territorial. Albistegia. 14.30: La cocina de Carlos Argiñano. Sukaldaritza saioa. 15.00: Telediario-1. Albistegia. 15.40: El tiempo. Eguraldia. 15.45: Agujetas de color de rosa. Foiletoia. 17.35: Se ha escrito un crimen. Telesaila. 18.30: Noticias. Albisteak. 18.35: Las gemelas de Sweet Valley. Telesaila.
19.00 - 00.00	19.10: Ana. Magazina. 20.25: Rompecabezas. Lehiaketa. 20.58: Teleberri. Albistegia. 21.30: Mr. Bean. Telekomedia. Cuidado con el niño. 22.00: Colegio Mayor. Telekomedia: El método perfecto. 23.00: Asi las cosas. Eztabaida saioa. Juan Luis Bikuñak aurkeztua. 23.55: El Derby. Errege Kopako futbol partidua.	19.00: La doctora Quinn. 20.00: Informativo territorial. Albistegia. 20.20: Gente de cartelera. 21.00: Telediario-2. 21.37: El tiempo. 21.40: Juntas pero no revueltas. Telekomedia. 22.15: Supercine. El padre de la novia (Father of the bride). Zuzendaria: Charles Shyer. Aktoreak: Steve Martin, Diane Keaton, Kimberly Williams. EBBB 1991. Spencer Tracy eta Elizabeth Taylorrek protagonizatutako zuten klasikoaren remakea. 00.20: La vida según...
00.00 - 06.00	00.55: Teleberri. Albistegia. 01.00: Dentro y fuera. Telesaila: La topera. 01.30: Ana. Magazina. 02.30: Amaiera.	01.15: Telediario 3. 01.50: Fútbol: Brasil-Argentina. Adiskidantza zoko partidua. 03.40: El toque de la muerte. 04.30: ¿Como lo veis? 05.00: ¿Como lo veis? 05.30: Telediario 4. Albistegia. 06.00: Dime luna. Telesaila.

CANAL + (e)

08.00: Redaccion. Albisteak. 08.05: ABC World News. Albisteak. 08.30: Tic Tac Toons. Marrazki bizidunak.
08.55: Redaccion. Albisteak. 09.00: Buenos dias, buenos clips. Musika saioa. 09.25: Mucho mas. 09.52: Redaccion. Albisteak. 10.00: Filma: El jardín secreto. 11.38: Filma: Testigo inocente. 13.07: El mundo en pañales. Agarralo como puedas. Dokumentala. 13.30: Los 40 principales. 14.00: Mi viejo rockero. Telesaila. 14.25: Mas deporte. 14.55: Redaccion. 15.00: Joyas del mar Caribe. Dokumentala. 15.54: Filma: El informe pelicano. 18.11: National Geographic. 18.45: Abierto en Canal. 19.35: El critico. Marrazki bizidunak. 20.00: Avance redaccion. 20.05: Padres forzosos. Telekomedia. 20.30: Lo + plus. 21.30: Redaccion. 21.53: Contrareloj. 22.00: Filma: Cumbres borrascosas. 23.44: Piaz extra: Gary Larson. The Far Side. 00.16: Gofa: Grand Slam. 03.55: Nazioarteko futbol, 05.42: Filma. Corazón roto. 07.34: Piezas.

CANAL + (f)

07.00: CBS evening news. 07.20: Le journal de l'emploi. 07.25: Cyberflash. 07.30: Le dessin anime. 08.00: Ça cartoon. 08.55: Surprises. 09.00: Filma: Train d'enfer. 10.25: Flash info. 10.55: Filma: Wayne's World 2. 12.30: La grande famille. 13.45: Decode pas Bunny. 14.40: Les tribulations des macaques du Japon. 15.05: Les Simpson. 15.30: L'impossible monsieur Papa. 17.05: Futbol amerikarra. 17.55: Les Multoches. 18.00: Iznogoud. 18.30: Cyberflash. 18.40: Nulle part ailleurs. 20.30: Le journal du cinema. 21.00: Filma: A toute allure. 22.30: Jour de foot. 23.15: Filma: Les gens de la rizière. 01.20: Filma: Le syndicat du crime. 02.50: Surprises.